

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## 2014an 63 organo-transplante egin dira Nafarroan, haietatik 40 giltzurrunekoak, 19 gibeleskoak eta 4 bihotzekoak

*Organoak emateko ezezko erantzunen tasa % 6an jarraitzen du, Espainia guztiko % 15aren oso azpitik*

Viernes, 16 de enero de 2015

Nafarroan 63 organo-transplante egin dira 2014an, eta kopuru horretatik 40 giltzurrunetakoak izan dira (2 kasutan, bizirik dauden pertsonen emandako organoak), 18 gibeleskoak (3 kasutan, bizirik dauden pertsonen emandako organoak) eta 4 bihotzekoak. Hala adierazi dute gaur goizean, Osasuneko zuzendari nagusi Isabel Ansak eta Nafarroako Ospitaleguneko transplanteetako koordinatzaile José Elizalde aurkeztutako balantzean.

Organoak emateari dagokionez, emaileak izan daitezkeen 36 pertsona hauteman dira. Haietatik bost baztertu egin ziren medikuen aginduei jarraiki eta familiako bi ezezko ere jaso ziren; beraz, benetan 29 organo-emaile izan dira. Alde horretatik, aipagarria da ezezkoen tasak % 6 horretan jarraitzen duela, Estatuko batez bestekoaren oso azpitik (% 15). Horrek adierazten du Nafarroako gizartea zer solidarioa den, eta baita profesionalen lan-kalitatea nahiz haiek familiei ematen dieten arreta; horri esker, organo-emaileak izan daitezkeenak benetako emaile bihurtzen dira eta, horren ondorioz, organoa eman eta jarraian transplantea egin daiteke.

Aipatu behar da, 2014an, asistolia kontrolatutako lehen organo-emaitea izan dela (bihotz- eta arnas-gelditzea)

Dohaintza horiei esker, 50 giltzurrun, 27 gibel, 5 bihotz, 6 birika, 2 pankrea, 44 kornea eta 244 hezur lortu ziren. Haietan guztietan igoera izan da aurreko urtearekin alderatuz, 2014an zirkulazio-istripuz hildakoen kopuruak gora egin duelako bereziki. Nafarroako organo-emaileen tasa 453,3 da milioi bat biztanleko; Espainiakoa, berriz, 36koa.

Gainera, 2014an, hezur-muineko emaileen kopurua % 8,2 igo da (10.216); 2013an, 9.441 ziren. Kasu horretan ere, biztanle bakoitzeko tasa Estatukoaren gaineratik dago (15,9 mila biztanleko; Espainian, 3,6koa). Hezur-muineko 3 dohaintza izan ziren; bi kasutan hartzaileak Estatuko pazienteak, eta bestean, atzerritarra.

Bestalde, abenduaren 31n, Nafarroan 66 pertsona zeuden giltzurruneko transplantea egiteko zain, zortzi gibeleskoa egiteko eta beste lau, bihotzekorako. Aurreko urteko zifrak baino zertxobait altuagoak dira.

### 2015erako helburuak

2015erako jarduera-ildoei dagokienez, transplanteen beharrak asetzen utziko duten jarduera berriak sustatu eta finkatuko dira. Tradizioz

Espainiako dohaintza eta transplantearen eremuan oinarritutako funtsezko hiru jardueri eutsiko zaie, gainera (gizartearen kontzientziazioa, organo-emaeak izan daitezkeenak detektatzea eta familien ezezkoak murriztea).

Lehenik eta behin, Nafarroako Ospitaleguneko organo-emaeak detektatzeko eredia Lizarra eta Tuterako ospitaleetara zabaldu nahi da. Haren helburua heriotza entzefalikoek pazienteen dohaintzak areagotzea da.

Gainera, bizirik dauden pertsonen organo-ematea sustatuko da, honako hauen motibazioa eta kontzientziazio areagotuz: herritarrena nahiz pazienteen tratamenduan eta transplanteetan inplikaturako osasun-profesionalena.

Azkenik, 2014an Nafarroako Ospitalegunean ezarritako asistoliako dohaintzak finkatuko direla aurreikusten da.